

Funtsezko baliabideak

Enpresa bakoitzaren funtsezko elementuak gure balio – proposamenerako eskaintza garatzea ahalbidetuko digutenak dira, eta honen bitartez bezeroengana iristea, eta haiekin batera diru – sarrerak sortzea. Gauzak honela izanda, gure negozio – ideari dagokionez honakoak izango ditugu baliabide fisikoetan, intelektualetan, giza baliabideetan eta finantzetan hain zuzen ere.

- **Baliabide fisikoak:** gure kasuan armairuak beste enpresa batek fabrikatuko ditu, orduan baliabide horiek ez dira guretzat izango. Guk beharko ditugun baliabideak, honakoak izango dira: lokal bat gure armairuak erakutsi ahal izate mahaia eta aulkiak, boligrafoak, gure produktuaren erakusketa egin ahal izateko erabiliko ditugun katalogoen fabrikaziorako papera, tinta eta hainbat gauza gehiago.

Aktibo korronteari dagokionez (urte bat baino gehiagoko epean gure enpresan egongo diren aktiboak), bi lokal behar ditugu. Alde batetik bat biltegi moduan erabiltzeko eta honekin batera apalak, tresnak edo makinaria armairuak mugitzeko, (eta garraio elementuak zuek egingo baduzue garraio zerbitzu hau).

Eta bestetik, beste lokal bat gure denda eta bulegoa ezartzeko. Honetan beharko ditugu apalak, mahaia, ordenagailuak, inprimagailuak, aparatu teknologiko guztiak, ordainketak egiteko kuxkak, aulkiak...

Aktibo ez korrontea gure biltegian izango ditugun elementuak izango dira, behin erabilia berriz erosi behar ditugunak urte bat baino gutxiagoko epean: bulego materiala, ordezkotzeko piezak biltegiko makinarentzako, bilgarriak armairuak saltzen direnerako...

- **Baliabide intelektualak:** Asmakizuna gurea denez, patente eskakizuna eskatuko dugu, 20 urteetara gure produktua eskusiboa izanez. Programa informatiko guztiak ere. Beste enprekin sinatutako akordioak, horiek direla eta eskubide ezberdinak izango ditugu.
- **Giza – baliabideak:** baliabide honetan, gutariko bakoitzaren gaitasunekin eta abilezietan nabarmentzen da. Horregatik, gutariko bakoitzak ditugun abileziak aprobetxatuko ditugu. Batek, informatikaren inguruan gaitasunak ditu, beste batek, aldiz, ADE (zenbakiak, aurrekontuak... kudeatzen), eta beste biak, marketinean, ADEko abileziak dituen pertsonarekin batera.
- **Finantza- baliabideak:** finantzei dagokienez, hasteko, diru laguntzak eskatuko ditugu eta ostean, inbertsio bat egingo dugu eta behar ekonomikoak daudenean, dirua eskatuko dugu gure produktua hasteko helburuarekin.

